

1935ean egunkari euskalduna behar

Euskaldunon Egunkaria, 1991-02-19: 2.

"Aitzol-en" eskutitz bat dut eskuetan.

Donostiako "euskaltzaleak" elkargoko idazburua duen paperean idatzi zion Jokin Zaitegi Jesu Lagun eta idazle exiliatuari Belgikako Marneff-era 1935.go martxoaren 15ean.

Beraz, orain 56 urte.

Geroztik gerra bidez Errepublika bota zuten, eta "Aitzol" hil, Gernika erre, milaka euskaldun frentean bota, gartzelak bete, asko afusilatu eta 150.000 erbestera bultza; alemanak bigarren "Mundu-Gerra" sortu eta milioika gizakumeak hil eta gero, Aliatuak eta Frankok irabazi; hau, beste 30 urtez herria zanpatu eta gero, ohean hil zen; demokrazian Autonomia botoz irabazi genuen, Eusko Jaurlaritza burutu, eta honi zor zaizkion ahalmenak pittinka-pittinka erregalatzen ari zaizkigula hamar urte joan eta oraindik ez ditugu geureak direnak eskuratu.

Luzea izan zen diktaduraren kalbarioa, eta luzea doa emokraziaren gauzatzea.

Beti, geurea denaren eske!

Eskale bihurtu gaituzte, "Aitzol" bezala, hau hil zuten baina bere ahotsa ez; orain 56 urte idatzitako gutunaren bitartez hemendik entzuten diogu esaten: "Euskal-egunerokotzaz galdetzen didazu? Ez gaude oraindik maila horretara iritsirik. (...). 'Euskaltzaleak' paskunarentzako, ez beste euskal egintzarako, inork ez du xentimorik ere eskaintzen... Nola egunerokoa argitaratzea pentsatu? Nola milioi erdia bildu genezake?".